# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

**LEHENDAKARITZA**

**650**

**1/1993 LEGEA, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa.**

**Eusko Legebiltzarrak ondoko Legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:**

**OTSAILAREN 19KO 1/1993 LEGEA, EUSKAL ESKOLA PUBLIKOARI BURUZKOA**

**Zioen Adierazpena**

Egungo gizarteetan, eta gero eta gehiago, hezkuntza-sistemek funtsezko zereginak betetzen dituzte norbanakoen heziketan.

Eskola publikoa, testuinguru horretan, administrazioaren iharduketa zuzeneko tresna da, bai hezkuntza-eskubidea bermatzen duen Konstituzioaren agindua betetzeko, bai ezberdintasunak berdintzeko.

Azken urteotan, herritarren artean kultura-itxarobide handiagoak hedatzeak, oinarrizko irakaskuntzetako eskolaketa zabaltzeak, ekoizpen-sektoreak lan desberdinak egiteko gauza diren lanbidedunak eskatzeak eta Europako bateratasun-prozesuan ongi prestatutako pertsonekin parte hartzeko maila gorako kalitatea lortu beharrak hezkuntza-sistema eraberritua eskatzen dute. Sistemaren antolaketa berria HSALOk arautzen du oinarrian eta Estatu osorako.

Euskal Herriko Autonomi Elkarteak, Autonomi Estatutuak 16. atalean dioenez, irakaskuntzari buruzko bakarreango aginpidea du, beti ere Konstituzioko 27. atalak eta hura garatzen duten lege organikoek ezarritakoari, Konstituzioko 149.1.30 atalak Estatuari aitortzen dizkion ahalmenei eta hura betetzeko eta garatzeko behar den goi-ikuskatzailetzaren kaltetan gabe. Autonomi elkarte honek, bestalde, baditu hezkuntza-sistemak kontutan hartu beharreko kultura-ezaugarri berarizkoak: bi hizkuntza ofizial, zeinen garapenerako lagundu behar duen sistema horrek, eta hizkuntza-alorrean gainditzeko dauden zenbait gatazka, konponbidea eskatzen dutenak.

Ildo horretatik, euskal eskola publikoa legez arautzea premiazkoa da haren bidez lege-esparru egonkor bat sortuz, esparru horrek ezarriko baititu eskola publikoaren eredua zehazten duten arauzko hautabideak eta bertan egingo baita eraginkortasun handiagoz martxan dagoen hezkuntza-berrikuntza.

Lehenengo idazpuruan euskal eskola publikoaren hatsapen orokorrak eta helburuak jasotzen dira eta haren ezaugarriak zein diren zehazten: anitza, elebiduna, demokratikoa, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, gizarte eta kultura mailan bere ingurunean errotua, partaidetzazkoa, ezberdintasunen berdintzaile eta dibertsitateen bateratzaile izango da.

**PRESIDENCIA**

**650**

**LEY 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca.**

**Se hace saber a todos los ciudadanos de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:**

**LEY 1/1993, DE 19 DE FEBRERO, DE LA ESCUELA PÚBLICA VASCA**

**Exposición de Motivos**

En las sociedades modernas, y cada vez en mayor medida, los sistemas educativos cumplen funciones esenciales en la formación de los individuos.

En ese ámbito, la escuela pública es el instrumento de actuación directa de la Administración en el cumplimiento del precepto constitucional que garantiza el derecho a la educación y en la compensación de las desigualdades.

En los últimos años, la extensión de mayores expectativas culturales de la población, la generalización de la escolaridad en las enseñanzas básicas, las demandas por parte del sector productivo de profesionales versátiles, y la elevada calidad de las cualificaciones necesarias para participar en el proceso europeo de convergencia con personas suficientemente formadas, exigen un sistema educativo reformado. La LOGSE regula básicamente, y para todo el Estado, la nueva ordenación del sistema.

La Comunidad Autónoma del País Vasco tiene, según el art. 16 de su Estatuto de Autonomía, competencia plena en materia de Educación, sin perjuicio del art. 27 de la Constitución y las leyes orgánicas que lo desarrollan, de las facultades que atribuye al Estado el art. 149.1.30° de la misma y de la alta inspección necesaria para su cumplimiento y garantía. Esta Comunidad Autónoma tiene además características culturales propias que el sistema educativo debe considerar, dos lenguas oficiales que ha de contribuir a desarrollar y conflictos pendientes en el ámbito educativo que es preciso resolver.

En ese sentido es preciso regular mediante ley la escuela pública vasca, creando un marco legal estable que establezca las opciones normativas que determinan el modelo de escuela pública y en el que se pueda producir con más eficacia la aplicación de la reforma educativa en marcha.

**En el título primero de la ley se recogen los principios generales y los fines de la escuela pública vasca, que se define como plural, bilingüe, democrática, al servicio de la sociedad vasca, enraizada social y culturalmente en su entorno, participativa, compensadora de las desigualdades e integradora de la diversidad.**

Lehenengo idazpuru horretan sendo bultzatzen den eskola publikoak giza eta gauzazko baliabideez ongi hornituta egon behar du eta harekin loturik dauden gizarte-sektore guztiek esku hartzea eta ikastetxeek egiazko autonomia izatea ahalbideratuko du.

II. idazpuruak euskal eskola publikoan hezkuntza-eskubidea nola gauzatzen den arautzen du. Idazpuru horrek bultzatzen duen irakaskuntza kalitatezkoa da, hiru urtetik aurrera -eta ez bakarrik derrigorrezko mailetan- doakoa, eta ezberdintasunen zuzentzailea. Batipat gizarte- eta ekonomi jatorria duten ezberdintasunak zuzenduko ditu, haiek ezabatzen lagunduko duten neurriak ezarriz. Horretarako, konpentsazio-fondo bat eratzen da; aurrekontuez osatuko da eta fondoaren beraren soberakina, babes-neurri gisa, berez eta besterik gabe sartuko da fondo horretan, urteroko Aurrekontu Nagusien Legean ezarritako modu eta neurrietan.

III. idazpuruak eskola publikoan euskarak duen tratamendua arautzen du. Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen, Euskeraren Erabilpena Arauzkotzezkoaren, hatsapenei begirunea izanik, haietan sakontzen da, hezkuntza-administrazioak gizarte-alorreko administrazio eta giza taldeekin lankidetzan eta elkarlanean aritzeko hatsapena ezartzen da eta irakaslegoa euskalduntzeko plan urteanitza ohartematen da.

Legeak, laugarren idazpuruan, eskola-bilguneka egiten den lurralde-banaketan oinarri hartuta antolatzen du euskal eskola publikoa, Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoaren eta Administrazioko Zerbitzu Ikuskaritzaren aginpide den ikuskaritza-egitekoa arautzen du, eta Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak taiutzen ditu, gehienbat bilgunean antolatuz, nahiz lurraldeari dagokionean eskola-bilgunearekin bat ez datozen zerbitzu-ikuskaritzak sortzeko ahalbidea eskaintzen duen.

Ikastetxeen autonomiaren hatsapena jadanik urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza Sistema Antolatzekoak, jasotzen du pedagogiazko autonomia gisa bere 2.3.f) puntuan eta hatsapen hori garatzen duten 57. eta 58. ataletan. Azken bi atal horietan antolakuntza-eremuetara eta ekonomi kudeaketara hedatzen da autonomia eta haren sustapena hezkuntza-administrazioen gain jartzen da.

Ikastetxeek beren antolakuntza, irakaskuntza-iharduera, ekonomia eta finantzen kudeaketa zein langilegoaren kudeaketa moldatzeko ahalmen handiagoak izanez gero, irakaskuntzaren kalitatea hobetuko da; uste horretan oinarriturik, lege honetako V. idazpuruak ikastetxeen autonomia arautzen du, saiatzen delarik ikastetxeetarako ahalik eta autonomia handienaren eta administrazioak haien gainean egin beharreko koordinaketa eta kontrolaren arteko oreka mantentzen, administrazioak bermatu beharra baititu eskola publikoen helburu nagusiak sistema osoak lortzeko behar diren gutxieneko neurriak.

Bai ikastetxearen hezkuntzako, ikasketetarako eta kudeaketako proiektuak, bai antolakuntza- eta iharduera-araudia onartu eta burutzean gauzatzen da euskal eskola publikoko ikastetxeen autonomia.

Antolaketa-eskemari dagokionez, legeak gutxienekoen sistema bat hautatu du, ikastetxeei ezinbeste-

Se apuesta firmemente en este título primero por una escuela pública suficientemente dotada de medios materiales y humanos, en la que participen todos los sectores sociales implicados y en la que los centros gocen de una autonomia efectiva, principio que tiene un amplio desarrollo en el título V.

El título II regula el ejercicio del derecho a la educación en la escuela pública vasca, potenciando una enseñanza de calidad, gratuita, no sólo en los niveles obligatorios, sino a partir de los tres años de edad, y correctora de las desigualdades, especialmente de origen socioeconómico, estableciendo medidas que contribuyan a su superación. A este efecto se crea como instrumento de compensación un fondo que se nutrirá presupuestariamente y en el que como medida de protección quedará automáticamente incorporado el saldo del propio fondo que resulte excedentario, en los términos que establezca la ley de Presupuestos Generales de cada año.

El título III regula el euskera en la escuela pública. Respetando los principios de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, se profundiza en los mismos, se establece un principio de colaboración y cooperación de la Administración educativa con las Administraciones e instancias sociales, y se prevé la realización de un plan plurianual de euskaldunización del profesorado.

El título cuarto de la ley organiza la escuela pública vasca en base a su división territorial en circunscripciones escolares, regula la función inspectora encomendada a la Inspección Técnica de Educación y a la Inspección Administrativa de Servicios, y diseña los Servicios de Apoyo a la Educación, organizados básicamente en la circunscripción si bien se deja abierta la posibilidad de crear Servicios de Apoyo no coincidentes territorialmente con la circunscripción escolar.

La autonomía de los centros docentes es un principio ya recogido (como autonomía pedagógica) en el artículo 2.3.f) de la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, y desarrollado en los artículos 57 y 58 del mismo texto legal, que lo amplían a los ámbitos organizativos y de gestión económica, a la vez que encomienda a las Administraciones educativas el fomento de esa autonomía.

En el convencimiento de que la enseñanza ganará en calidad con unos centros que tengan mayores facultades que los actuales para autorregular su organización, su actividad pedagógica, de gestión económica-financiera y de gestión de personal, el título V de la ley regula la autonomía de los centros docentes, tratando de buscar el equilibrio entre la mayor autonomía posible para aquéllos y la necesaria coordinación y control que la Administración debe mantener sobre los mismos como garante de unos mínimos necesarios que posibiliten el logro para todo el sistema de los fines generales que la escuela pública persigue.

La autonomía de los centros se manifiesta a través de la aprobación y ejecución por ellos mismos de sus proyectos educativo, curricular y de gestión y de su reglamento de organización y funcionamiento.

En el esquema organizativo, la ley opta por un sistema de mínimos en los que se recogen aquellos ór-

kotzat jotzen diren organoak zein diren esan eta haien egoerarekin hobekien egokitzen diren beste batzuk sortzeko askatasun osoa ematen dielarik. Irizpide bera erabili da ikastetxeko aginte-organo nagusiaren (ordezkaritza-organo gorenaren) osaera dela-eta, behin eskola-elkartea osatzen duten talde bakoitzari dagokion partaidetza bermatuta, ikastetxe bakoitzak egokien erizten dion moduan eratzeari oztoporik jartzen ez zaiola.

Ikastetxeko zuzendariaren irudia indartu nahi du legeak, eta horretarako, zuzendariak espezializazio-ikastaroak gainditu beharko ditu kargu horren egitekoak burutzeko prestakuntza egokia izan dezan.

Lege mailan zuzendaritza-taldea ikastetxeko agintezko batzar-organo gisa definitzea gauza berria da. Beste alde batetik, irakasle-klaustroa ikastetxeko irakaskuntza-iharduerei buruz erabakitzeko ahalmena duen organo gisa indartu nahi da. Eta, eskolarekin lotuta dauden talde guztiek bertan parte hartu behar dutela dioen hatsapenari erantzun emanik, gurasoen batzarra eta ikasleen partaidetza-organoa ikastetxean behar diren organoak direla ezartzen da.

Pedagogiazko autonomiari eman nahi zaion indarra hezkuntza-aukera eta eskola-curriculumaren zehaztapena jasotzen dituzten agiriak ikastetxeek egin eta onartzean gauzatzen da. Beraz, agiri horiek, lege-arauen begirune barruan, eskola-elkartearen kideen erabakimen askearen adierazgarri izango dira, bakoitza dagokion batzar-organoan erabakiko delarik.

Lege honen berritasunik handienetako bat kudeaketa-autonomia arautzeko eran datza. Sortzen den eskeman, administrazioak berarentzat gordetzen dituen ziurtapen eta kontrolen kaltetan gabe, ikastetxeek beren diru-kudeaketa antolatzeko malgutasun handiagoa izango dute, beren aurrekontua egingo baitute eta aurrekontu-urtean zehar funtzionamendu-gastuen banaketa askatasunez alda baitezakete.

Ikastetxeetako zuzendariek administratzaileen laguntza izango dute ikastetxearen diru-kudeaketa guztia egiteko, administratzaileak, gaikuntza bereziko ikastaroen bidez, ikastetxeko ekonomi ihardueraren arintasuna eta egokitasuna berma ditzaketen lanbidedunak izatea bilatzen delarik.

Ikastetxeek, legeak V. idazpuruko V. atalburuan dioenez, bere langilegoaren hautaketan eta langileen presta-berritze ikastaroetan parte hartzeko aukera izatea ere gauza berria da. Neurri horiek garatzen dituzten erabakiak hartzean langileen ordezkaritzaren pardaidetza nolakoa izango den azken erabakietako lehenengoan jasotzen da.

Bere erabaki gehigarrietan eskola publikoaren legea bi gai garrantzitsuz mintzatzen da:

1.- Urriaren 28ko 13/1988 Legea, Euskadiko Eskola Kontseiluena, onartu eta erakunde hori martxan jarri ondoren, Euskadiko Eskola Kontseiluaren aginpideak hedatzeko beharra dagoela nabarmendu da, hura izan dadin unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren plangintza orokorrean esku hartzen duten gizarte-sektoreek parte hartzeko,

ganos que se consideran imprescindibles, dejando a los centros plena libertad para crear otros que se adecuen mejor a su realidad. El mismo principio rige en cuanto a la composición del órgano central de gobierno del centro (el órgano máximo de representación), permitiendo que los centros, una vez garantizada la participación suficiente de cada uno de los colectivos que forman la comunidad escolar, compongan ese órgano como consideren más adecuado.

La ley trata de potenciar la figura del director del centro, buscando, mediante los cursos de especialización que deben superar, un personal con la formación adecuada para el desempeño de esa función.

Es novedosa la definición a nivel de ley del equipo directivo como órgano colegiado de gobierno del centro, a la vez que se potencia el claustro de profesores como órgano trascendente en las actividades docentes del centro y, respondiendo al principio de una escuela participativa, se recoge a la asamblea de padres y al órgano de participación de los alumnos como órganos necesarios de los centros.

El fortalecimiento de la autonomía pedagógica se concreta en la elaboración y aprobación por parte de los centros de los documentos que definen su opción educacional y la correspondiente concreción del curriculum escolar. Serán expresión por lo tanto, dentro del respeto a las normas legales, de la libre decisión de los miembros de la comunidad escolar adoptada en los correspondientes órganos colegiados.

Una de las mayores novedades de la ley se contiene en la regulación de la autonomía de gestión. Se crea un esquema en el que, sin perjuicio de las justificaciones y controles que la Administración se reserva, los centros gozan de una mayor flexibilidad para organizar su gestión económica, debiendo elaborar un presupuesto propio, dejando, no obstante, libertad al centro para reordenar, dentro del ejercicio, sus gastos de funcionamiento.

Los centros contarán con administradores para el asesoramiento al director en toda la gestión económica del centro, buscando mediante cursos de capacitación específica una figura profesional que garantice la agilidad y acierto de la actividad económica del centro.

Igualmente novedosa es la posibilidad que el capítulo V del título V de la ley crea de que los centros participen en la selección de su personal y en la participación del mismo en cursos de reciclaje. En la disposición final primera se recoge especialmente la participación de la representación de los trabajadores en la elaboración de las disposiciones que desarrollen estas medidas.

En sus disposiciones adicionales la ley de la Escuela Pública recoge dos cuestiones de especial interés:

1.- Tras la aprobación de la Ley 13/1988, de 28 de octubre, de Consejos Escolares de Euskadi, y con la puesta en marcha de esa institución, se ha detectado la necesidad de ampliar las competencias del Consejo Escolar de Euskadi como órgano superior de participación, consulta y asesoramiento de los sectores sociales implicados en la

kontsultak egiteko eta aholkuak eskatzeko duten goi-organoa.

2.- Ikastolak, Konstituzio-aurreko aldian euskaraz irakasteko xedez sortu zirenak, 1978. urtetik zabalduz joan dira, maiz botere publikoak konpondutako diru eta gauzazko zailtasunekin, ikastetxe-multzo bat osatu arte. Horietatik asko ekainaren 29ko 10/1988 Legeak jasotzen dituen itune bereziez baliatu dira. Legearen erabaki gehigarrietako zazpigarrenaren arabera, ikastolek askatasunez aukera dezakete sare publikora bildu ala ikastetxe pribatu izan eta Ikastolak eta Herri Eskola Biltzeko Legeak ezarritakoa bermatzen da, hezkuntza-sistema behin-betiko eta zalantza gabe bi saretan, publiko eta pribatuan, egitura dadin.

## I. IDAZPURUA
## EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN HATSAPEN OROKORRAK ETA HELBURUAK

**1. atala.-**

1.- Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza ematen duten herri-ikastetxe guztiek osatzen dute euskal eskola publikoa.

2.- Lege honen ondorioetarako, autonomi elkarteko administrazioaren jabetzapekoak dira herri-ikastetxe; eta udal-erakundeen jabetzapekoak, erabaki gehigarrietako hamaikagarrenean jasotako modu eta neurrietan.

3.- Ebaluazio, ikerketa eta hezkuntzari laguntzeko zerbitzu bereziak izango ditu euskal eskola publikoak, eta Euskal Autonomi Elkarteko hezkuntza-sistema osoa izango dute iharduera-eremua.

4.- Euskal eskola publikoak Konstituzioari, Autonomi Estatutuari, lege honi eta berau gara dezaten arauei men eginez gauzatuko du bere iharduera.

**2. atala.-**

1.- Euskal eskola publikoa osatzen duten herri-ikastetxeei antolaketa, pedagogia eta kudeaketarako autonomia aitortzen zaie, lege honetan arautzen den moduan.

**3. atala.-**

1.- Euskal eskola publikoa, horko ikastetxe bakoitza, anitza, elebiduna, demokratikoa da, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, gizarte eta kultura mailan bere ingurunean herrotua, partaidetzazkoa, ezberdintasunen berdintzailea eta dibertsitateen bateratzailea.

2.- Hona hemen euskal eskola publikoaren helburuak:

a) Konstituzioak aitortutako hezkuntzarako eskubidea benetan baliatu ahal izatea bermatzea, hori galerazten duten ekonomi eta

programación general de la enseñanza no universitaria.

2.- Las ikastolas, escuelas nacidas en el periodo preconstitucional con el fin principal de enseñar en euskera, han ido extendiéndose desde 1978, en muchos casos con dificultades económicas y materiales que han sido suplidas por los poderes públicos, hasta configurar un conjunto de centros, muchos de los cuales se han acogido a los convenios particulares amparados en la Ley 10/1988, de 29 de junio. La ley en su disposición adicional séptima permite la opción libre de esas ikastolas entre la confluencia en la red pública o su permanencia definitiva como centros privados, garantizando lo establecido en la ley para la Confluencia de las Ikastolas de forma que el sistema educativo se configure definitivamente y sin ambigüedades en dos redes, una pública y otra privada.

## TÍTULO I
## PRINCIPIOS GENERALES Y FINES DE LA ESCUELA PÚBLICA VASCA

**Artículo 1.-**

1.- El conjunto de centros públicos que imparten la enseñanza no universitaria configuran la escuela pública vasca.

2.- Son centros públicos, a los efectos de la presente ley, aquellos cuya titularidad corresponde a la Administración de la Comunidad Autónoma, y, en los términos recogidos en la disposición adicional décima, los centros de titularidad de las Corporaciones locales.

3.- La escuela pública vasca contará con servicios específicos de evaluación, investigación y de apoyo a la educación; su ámbito de actuación será el conjunto del sistema educativo de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

4.- La escuela pública vasca llevará a cabo su actividad en el marco de la Constitución, del Estatuto de Autonomía y de la presente ley, así como de las normas que la desarrollen.

**Artículo 2.-**

1.- Se reconoce a los centros públicos docentes que componen la escuela pública vasca la autonomía de organización, pedagógica y de gestión en los términos que se regulan en esta ley.

**Artículo 3.-**

1.- La escuela pública vasca, cada uno de sus centros, se define como plural, bilingüe, democrática, al servicio de la sociedad vasca, enraizada social y culturalmente en su entorno, participativa, compensadora de las desigualdades e integradora de la diversidad.

2.- Son fines de la escuela pública vasca:

a) Garantizar el ejercicio efectivo del derecho a la educación, constitucionalmente reconocido, eliminando los obstáculos econó-

gizarte-oztopoak edo beste edonolakoak ezabatuz.

b) Elkarbizitza demokratikoa ahalbideratzen duten baloreetan oinarriturik ikasleen nortasuna askatasunean garatzea eta heziketa osatua bultzatzea, besteak beste, gaitasun eta jokaera kritikoa, berdintasuna, zuzentasuna, partaidetza, aniztasunarekiko eta kontzientzi askatasunarekiko begirunea, elkartasuna, gizartearekiko kezka, elkar eramankortasuna eta elkarrenganako begirunea, bai eta giza eskubideen aldeko jarrera ere, sustatuko dituela.

c) Irakasleek, gurasoek eta ikasleek herri-ikastetxeen kudeaketan demokrazia-legez parte hartzeko duten eskubidea gauza dadin sustatzea eta bermatzea.

d) Irakasleen katedra-askatasuna, lege honek zehazten duen esparruan guraso nahiz tutoreek beren seme-alabentzako ikastetxea aukeratzeko eta, hala dagokionean, legez ezarritako baldintzetan, beren seme-alabentzako nahi duten erlijio-irakaskuntza aukeratzeko eskubidea gauzatuko direla bermatzea.

e) Kalitatezko irakaskuntza emango dela ziurtatzea, arreta berezia eskainiz irakatsi beharreko edukien balio pedagogikoari eta erabiliko diren metodo-bideen eraginkortasunari, gure inguruneko aurrerapausoak kontutan har ditzaten metodologia aktibo eta malguak sartuz, irakaslegoari behar duen presta-berrikuntza eskainiz eta ikaslearentzako laguntza psikologikoa, eskola eta lanbide mailakoa ziurtatuz.

f) Ikasleen jatorrizko ezberdintasunak berdintzeko, maila, etapa, ziklo eta gradu guztietan ihardutea.

g) Ikasle guztiek, baldintza beretan, derrigorrezko irakaskuntza-aldia bukatzean bi hizkuntza ofizialen ezagupen praktikoa izango dutela bermatzea, euskararen erabilera bultzatuz eta normalkuntzari lagunduz.

h) Euskal Herriko kide direnez ikasleek duten kultura-nortasuna mamitzen laguntzea, ikasleak beren geografiazko, gizarte-ekonomiazko eta kulturazko ingurunean errotzea bultzatuz.

i) Ikasleengan ohitura intelektualak, lan-teknikak eta jakintzak garatzea, jakintza-gai guztiak baterabiltzeko moduan.

j) Bakerako, askatasunerako eta herrien arteko lankidetza- eta elkartasun-ideiak sustatzeko heziketa.

k) Ematen den heziketaren hezkidetasuna ziurtatzea.

micos, sociales o de cualquier otra índole que lo impidan.

b) Impulsar el desarrollo en libertad de la personalidad y la formación integral de los alumnos, asentados en los valores que hacen posible la convivencia democrática, fomentando, entre otros, la capacidad y actitud crítica, la igualdad, la justicia, la participación, el respeto al pluralismo y a la libertad de conciencia, la solidaridad, la inquietud social, la tolerancia y el respeto mutuo, así como la defensa de los derechos humanos.

c) Promover y garantizar el ejercicio del derecho a la participación democrática de profesores, padres y alumnos en la gestión de los centros públicos.

d) Garantizar el ejercicio efectivo de la libertad de catedra de los profesores, del derecho a la elección de centro por los padres o tutores, en el ámbito que define esta ley, y a elegir, en su caso, la enseñanza religiosa que deseen para sus hijos en las condiciones legalmente previstas.

e) Asegurar la prestación de una enseñanza de calidad, con especial atención al valor pedagógico de los contenidos a impartir y a la eficacia de los métodos a utilizar, introduciendo metodologías activas y flexibles que tengan en cuenta los avances que se están produciendo en nuestro entorno y el correspondiente reciclaje del profesorado, así como una activa orientación psicológica, escolar y profesional del alumno.

f) Actuar en todos los niveles, etapas, ciclos y grados como elemento de compensación de las desigualdades de origen de los alumnos.

g) Garantizar a todos los alumnos, en igualdad de condiciones, el conocimiento práctico de ambas lenguas oficiales al acabar el periodo de enseñanza obligatoria, potenciando el uso y contribuyendo a la normalización del euskera.

h) Facilitar el descubrimiento por los alumnos de su identidad cultural como miembros del pueblo vasco mediante el conocimiento de su historia y cultura propias, fomentando el enraizamiento de los alumnos en su entorno geográfico, socioeconómico y cultural.

i) Desarrollar en los alumnos la adquisición de hábitos intelectuales, técnicas de trabajo y conocimientos, de forma integradora entre todas las áreas del saber.

j) La formación para la paz, la libertad y la promoción de las ideas de cooperación y de solidaridad entre los pueblos.

k) Asegurar el carácter coeducador de la enseñanza que se imparta.

l) Irakaskuntzaren edukietan manipulazioak eta ideologiazko dotrinatzera bideratutako edukiak irakastea baztertzea.

**4. atala.-**

Aurreko atalean adierazitako helburuak erdiesteko, euskal eskola publikoak ondorengo bitartekoak izango ditu:

a) Hezkuntza, curriculum eta kudeaketako proiektuak eta lege honen 2. atalean ikastetxeei aitortzen zaien autonomia gauzatzeko arauak egitea eta garatzea.

b) Eskola-elkarteko kide guztien parte hartze demokratiko eta eraginkorra. lege honetan landutako esparruan.

c) Eskolaren beharrei erantzuteko lanbide- eta hizkuntza-eskakizunen jabe izango den irakaslegoa.

d) Eskolako zerbitzuen elebitasuna.

e) Ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-proiektuari egokituriko instalazioak eta hornidura.

f) Ikastetxeek beren geografia, gizarte eta kulturazko ingurunearekiko harreman estua, bateratutako ekintzetarako planen eta trukaketen bidezko elkarren arteko lankidetza, eta E.H.A.E.ko administrazioen eta erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetza.

**5. atala.-**

3. atalean zerrendatutako helburuak betetzeko, Euskal Autonomi Elkarteko herri-aginteek honako egitekook izango dituzte, zeinek bere aginpideen esparruan:

a) Irakaskuntzaren programazio orokorra eta, demokraziazko eta partaidetzazko plangintzaren barruan, euskal eskola publikoa osatzen duten ikastetxeak sortzea, aldatzea edo ezabatzea, irakaskuntza kalitatezkoa izango dela bermatzeko.

b) Ikastetxeek beren hezkuntza eta ikasketa-proiektuak garatzeko irizpideak eta gutxieneko betebeharrak arautzea, irakaskuntza kalitatezkoa izango dela bermatzeko.

c) Hezkuntzarako eskubidea benetan gauzatzen dela bermatzeko beharrezko neurriak hartzea.

d) Ikastetxeen autonomia gauzatzeko bide eman dezan lege-esparrua sortzea.

e) Hizkuntza-ereduen plangintza, gurasoek eta ikasleek eredua aukeratzeko duten eskubidea gauzatu ahal izan dezaten, eta bai aukeratzeko askatasun hori bermatuko duten administrazio-bideen garapena ere.

**l) La exclusión de las manipulaciones en el contenido de la enseñanza y la impartición de conocimientos que persigan el adoctrinamiento ideológico.**

**Artículo 4.-**

Para conseguir los fines reseñados en el artículo anterior la escuela pública vasca dispondrá de los siguientes medios:

a) La elaboración y desarrollo de los proyectos educativo, curricular y de gestión, y de las normas propias para el ejercicio de la autonomía reconocida a los centros en el artículo 2 de la presente ley.

b) La participación democrática y activa de los miembros de la comunidad escolar, en el marco desarrollado en esta ley.

c) Un profesorado cuyos perfiles profesionales y lingüísticos den respuesta a sus necesidades.

d) La condición bilingüe de los servicios que la integran.

e) La dotación de instalaciones y equipamiento adecuados al proyecto educativo de cada centro.

f) La relación estrecha de los centros docentes con su entorno geográfico, social y cultural, su colaboración mutua mediante planes conjuntos de actividades e intercambios, y la coordinación y la colaboración entre las diferentes Administraciones e instituciones de la C.A.P.V.

Artículo 5.-

Para el cumplimiento de los fines relacionados en el artículo 3, corresponden a los poderes públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el ámbito de sus respectivas competencias las siguientes funciones:

a) La programación general de la enseñanza y la creación, modificación y supresión de los centros que configuran la escuela pública vasca, en el marco de una planificación democrática y participativa, para asegurar la prestación de una enseñanza de calidad.

b) La regulación de los criterios y requisitos mínimos a partir de los cuales los centros públicos desarrollarán sus respectivos proyectos educativos y curriculares.

c) La adopción de las medidas necesarias que garanticen la realización efectiva del derecho a la educación.

**d) La creación de un marco jurídico que posibilite la realización de un principio efectivo de autonomía de los centros.**

**e) La planificación de los modelos lingüísticos, con el fin de hacer efectivo el derecho de los padres y** alumnos a elegir los modelos que deseen, así como el desarrollo de los mecanismos administrativos que garanticen la libertad de esa elección.

f) Lege honetan eta gainerako legebidean berariaz ezar daitezen egiteko guztiak eta, oro har, euskal eskola publikoaren helburuak betetzera bideratutako guztiak.

6. atala.-

Egiteko horiek garatzeko, herri-aginteek guraso eta ikasleen elkarteen, langile-sindikatuen eta enpresa-elkarteen, udalen eta gizarte-arlo guztien parte hartzea bultzatuko dute, lege honetan, urriaren 27ko 13/1988 Legean, Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzkoan, eta ezarpen orokorreko gainerako arauetan ohartemandakoaren arabera.

II. IDAZPURUA
EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAN HEZKUNTZA-ESKUBIDEA GAUZATZEAZ

7. atala.-

Herri-aginteek, euskal eskola publikoko irakaskuntza doakoa eta kalitatezkoa izango dela bermatuko dute, hurrengo ataletan ohartemandako modu eta neurrietan.

8. atala.-

Euskal herri-administrazioek etengabe zainduko dute euskal eskola publikoko irakaskuntzaren kalitatea, ikastetxe bakoitzeko hezkuntza-proiektuarekin bat etorriaz; horretarako, helburuei egokituriko instalazioak eta hornidura jarri, ikastetxeetan irakasle/ikasle ratioak egokitu, hezkuntza- eta curriculum-proiektu berezituak bultzatu, euskararen erabilera normaldu, ikasleei psikologiazko, eskola-giroko eta lanbiderako orientabidea eman, eskolako langile guztien lan-baldintzak hobetu eta hezkuntza-beharrak asetzeko lagungarri izan daitezkeen neurri guztiak hartuko dituzte.

9. atala.-

1.- Herri-aginteek, euskal eskola publikoa osatzen duten ikastetxeen bitartez, unibertsitatekoaz kanpoko irakaskuntza orokorreko maila guztietan, 3 urtetik aurrerakoentzat doako eskolatzea bermatuko dute, errepikapenei eta ikastetxeetan jarraitzeari buruz ezar daitezen mugapen berezien mendean.

2.- Hezkuntza-administrazioak, gainerako Administrazioekin eta gizarteko eragileekin lankidetzan, eska dezaten guztiak arian-arian zero urterekin eskolatzea ezarriko du, haurrak eskolatzeko aukeren berri emanez hezkuntza-munduko alor guztiei. Nolanahi ere, ezarpen-prozesuan lehentasuna izango dute gizarte eta ekonomi maila apaleneko aldeek eta, orokorrean, hezkuntzako behar bereziak edo hizkuntzazkoak dituzten ikasleek.

10. atala.-

1.- Euskal eskola publikoan neurri positiboak hartu-

f) Cuantas otras funciones se establezcan específicamente en la presente ley y en el resto del ordenamiento jurídico o en general puedan ir ordenadas a la realización de los fines de la escuela pública vasca.

Artículo 6.-

Para el desarrollo de estas funciones, los poderes públicos promoverán la participación de las asociaciones de padres y alumnos, de los sindicatos de trabajadores y de las asociaciones empresariales, de los Ayuntamientos y de todos los sectores sociales, conforme a las previsiones que se contienen en esta ley, en la Ley 13/1988, de 27 de octubre, de Consejos Escolares de Euskadi, y en las demás normas de general aplicación.

TÍTULO II
DEL EJERCICIO DEL DERECHO A LA EDUCACIÓN EN LA ESCUELA PÚBLICA VASCA

Artículo 7.-

Los poderes públicos garantizan la prestación de una enseñanza gratuita y de calidad en la escuela pública vasca, en los términos contemplados en los artículos siguientes.

Artículo 8.-

Las Administraciones públicas vascas velarán de forma permanente por la calidad de la enseñanza en la escuela pública vasca, de acuerdo con el proyecto educativo de cada centro, mediante la dotación de instalaciones y equipamientos apropiados para sus fines, la adecuación de los ratios profesor-alumno en los centros, la incentivación de los proyectos educativos y curriculares diferenciados y de la normalización del uso del euskera, la orientación sicológica, escolar y profesional del alumno, la mejora de las condiciones de trabajo de todo el personal de la escuela y la adopción de cuantas medidas puedan contribuir a la satisfacción de las necesidades educativas.

Artículo 9.-

1.- Los poderes públicos garantizarán, a través de los centros que integran la escuela pública vasca, la escolarización gratuita, a partir de los 3 años de edad, en todos los niveles de enseñanza de régimen general no universitarios, sin perjuicio de las limitaciones específicas que se establezcan sobre repeticiones y permanencia en los centros.

2.- La Administración educativa, en colaboración con las distintas Administraciones y agentes sociales, implantará de manera progresiva la escolarización a partir de los cero años a todos aquellos que la demanden, informando a los sectores educativos de las posibilidades de escolarización infantil. En todo caso, en el proceso de implantación se dará prioridad a las zonas de menor nivel socioeconómico y, en general, a los alumnos con necesidades educativas especiales o necesidades de carácter lingüístico.

Artículo 10.-

1.- En la escuela pública vasca se adoptarán medidas

ko dira bereizketazko egoerak ezabatzen laguntzeko.

2.- Aurreko atalkian adierazitako berdintasuna benetakoa izan dadin eta bereziki gizarte-ekonomiazko jatorria duten bereizketa-egoerak gainditze aldera, euskal eskola publikoaren baliabideak hobeto banatzeko bide emango duen konpentsazio-fondoan sartu beharreko diru-kopuruak sartuko dira Euskal Autonomi Elkarteko urtean urteko aurrekontu orokorretan. Aurrekontu-aldiaren amaieran soberan geratzen diren konpentsazio-fondo honetako diru-kopuruak hurrengo aurrekontu-aldiko fondokoei erantsiko zaizkie, hurrengo urte horretako Aurrekontu Orokorren Legeak ezar dezan moduan.

3.- Halaber, beka eta ikasketa-laguntza sistema bat bideratuko da, gizarte eta ekonomi izaerako ezberdintasunak gainditzeko banakako bide bezala.

4.- Bestalde, gorputz- nahiz adimen-ezintasunak dituztenei laguntzeko banakako neurriak hartzeko ahaleginak egingo dira. Hezkuntzako behar bereziak aurrezaintzeko, garaiz antzemateko, testuinguruа kontutan hartuz ebaluatzeko eta behar berezi horiei erantzun egokia emateko neurriak hartuko dira.

Ahal denean, behintzat, gela arruntetan eskolatuko dira ikasle guztiak, eta behar-beharrezko denean baino ez ikastetxe arruntetako heziketa bereziko geletan. Ezinbesteko izan dadinean, heziketa bereziko ikastetxeetan emango zaie heziketa ikasle horiei.

5.- Euskal eskola publikoan, hizkuntzaren normalkuntzari laguntzeko behar diren neurri positiboak hartuko dira.

6.- Euskal eskola publikoko herri-ikastetxeek, beren autonomia erabiliz eta, hala behar izanez gero, kanpoko laguntza-sistemen laguntzaz, gelako taldeen antolaketan indartze- eta malgutasun-neurriak, curriculumen egokitzapenak eta pedagogi baliabideen antolaketa-neurriak ezarri ahal izango dituzte, beti ere, derrigorrezko irakaskuntzaaldian zehar muinbakar, aniztasuna modu bateratzaile eta banakakoan bereganatzeko asmokoa eta ikasleei beren hezkuntza-helburuak erdiesteko aukera emango dien kalitatezko eskola ahalbideratuz.

7.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hitzarmenak egin ahal izango ditu gizarte- eta osasun-zerbitzuekin, orobat bestelako erakunde publiko nahiz pribatuekin ere, lege honetan adierazitako helburuen garapen osorako egitekoetan koordinazio haundiagoa lortzeko.

11. atala.-

Herri-agintean ahalmenak hezkuntzarako eskubidea benetan gauzatzera bideratuta daude, eta bereziki

positivas que contribuyan a la supresión de las situaciones de discriminación existentes.

2.- Para hacer efectivo el principio de igualdad al que se refiere el número anterior, y principalmente para la superación de situaciones de discriminación que tengan un origen socioeconómico, los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi de cada año recogerán los créditos que hayan de integrarse en un fondo de compensación que posibilite la mejor distribución de los recursos de la escuela pública vasca. Los créditos que de este fondo de compensación resulten excedentarios al final de un ejercicio presupuestario se incorporarán a los créditos del fondo correspondiente al ejercicio siguiente en los términos que establezca la ley de Presupuestos Generales para el ejercicio de que se trate.

3.- Igualmente se arbitrará un sistema de becas y ayudas al estudio como medida individual de compensación de las desigualdades de carácter socioeconómico.

4.- Así mismo, se procurará la adopción de medidas individuales que compensen minusvalías físicas o psíquicas. Se adoptarán medidas que garanticen la prevención, identificación precoz, evaluación contextualizada y adecuada respuesta a las necesidades educativas especiales.

Siempre que sea posible, la escolarización de todos los alumnos se realizará a través de unidades ordinarias y, sólo cuando ello sea necesario, mediante unidades de educación especial en centros ordinarios. En caso de que sea imprescindible se atenderá a la formación de estos alumnos a través de centros de educación especial.

5.- En la escuela pública vasca se adoptarán las medidas positivas necesarias que contribuyan a la normalización lingüística.

6.- Los centros de la escuela pública vasca, en uso de su autonomía y en su caso con la asistencia de los sistemas de apoyo externo, podrán implantar medidas de refuerzo y flexibilidad en la organización de los grupos de aula, de adaptación curricular y de ordenación de sus recursos pedagógicos, posibilitando una escuela de calidad, que sea comprensiva en el periodo obligatorio, que aspire a asumir de forma integradora e individualizada la diversidad, y en la que cada alumno llegue a alcanzar sus objetivos educativos.

7.- El Departamento de Educación, Universidades e Investigación podrá suscribir convenios con los servicios sociales o sanitarios, así como con otras instituciones públicas o privadas, a fin de lograr una mayor coordinación de las actividades de desarrollo integral de los objetivos señalados en esta ley.

Artículo 11.-

Las potestades de los poderes públicos están orientadas, en la escuela pública vasca, a la realización

eskolara sartzeko aukerara eta baita hezkuntza-prozesua arrakastaz burutzera ere.

**12. atala.-**

1.- Euskal eskola publikoan, ikasle guztiek hezkuntzaren maila guztietan euskaraz nahiz gazteleraz ikasteko duten eskubidea bermatuko da.

2.- Eskubide hori gauzatzea eta herri-aginteen eremu horretako ekintza, lege honen III. idazpuruan eta azaroaren 24eko 10/1982 Legean, Euskeraren Erabilera Arauzkotzezkoan, ezarritakoari lotuko zaizkio.

**13. atala.-**

1.- Euskal eskola publikoan, ikastetxeetarako sarbidea bermatuko da ezar dadin plangintzaren barruan, beste zenbait irizpideren artean eskaintza eskaerari egokitzea hartuko dela kontutan. Ikastetxeetan sartzeko mugapen orokor gisa ikastetxeon hezkuntza-eskaintzari darizkionak besterik ezingo dira ezarri, finka dadin plangintzaren arabera. Ikasleen onarpena araudi bidez zehaztuko da, ikastetxeetan ikaspostu aski ez izatekotan; familiaren urteko irabaziak, ikastetxearekiko hurbiltasuna eta ikastetxe berean neba-arrebarik edukitzea izango dira kontutan hartuko diren lehentasunezko irizpideak, inolako bereizketarik ezingo dela egin ez arautzean ez eta onartzean ere.

2.- Heziketa-behar bereziak dituztela eta, baliabide berezituen beharrean diren ikasleek lehentasuna izango dute baliabide horietaz osatutako ikastetxeetan sartzeko orduan.

3.- Gurasoek edo tutoreek dute ikastetxea askatasunez aukeratzeko eskubideaz baliatzeko ahalmena. Euskal eskola publikoaren esparruan, berau osatzen duten ikastetxeetako bakoitzari dagokionez erabili ahal izango da eskubide hori.

**14. atala.-**

Ikasleen heziketaren atal da Euskal eskola publikoa osatzen duten ikastetxeetako gobernu-lanetan, eta oro har eskolako eginkizun guztien garapenean, burutsu esku hartzeko eskubideaz baliatzea. Eskubide horretaz gehiago edo gutxiago baliatzeko ikaslearen adinari begiratuko zaio, eta lege honetan ezarritako esparruan garatuko da.

**15. atala.-**

1.- Ikasleek eskola-munduan dituzten banakako eta gizartezko eskubideak errespetatzetik abiatuz, Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko Eskola Kontseiluak txostena egin ondoren, ikasleen eskubideak eta betebeharrak dekretu bidez arautuko ditu.

2.- Euskal eskola publikoko ikasleei bidegabekeriarik gabeko zigorbidea zor zaie eta zigorrak jartzeko ihardunbideak bermeak izan ditzan eskubidea dute. Atal honetako aurreko atalkian ohartemandako dekretuak arautuko ditu ikasleen hutsegiteak eta zigorrak, baita zigorrok ezartzeko ihar-

efectiva del derecho a la educación, y en particular a la posibilidad de acceso a la escolarización y a la culminación con éxito del proceso educativo.

**Artículo 12.-**

1.- En la escuela pública vasca se garantizará el derecho de todos los alumnos a recibir enseñanza tanto en euskera como en castellano en los diversos niveles educativos.

2.- El ejercicio de este derecho y la acción de los poderes públicos en este ámbito se desarrollarán en el marco de lo previsto en el título III de esta ley y en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera.

**Artículo 13.-**

**1.- En la escuela pública vasca se garantizará el derecho de acceso a los centros docentes en el marco de la planificación que se determine, que incluirá, entre otros criterios, la adecuación de la oferta a la demanda. Sólo podrán establecerse como limitaciones generales en el acceso a los centros aquellas que se deriven de la propia oferta educativa de éstos de acuerdo con la planificación que se establezca. Reglamentariamente se regulará la admisión de alumnos para los casos en que no existan plazas suficientes en cada centro; los criterios prioritarios serán los de la** renta anual familiar, la proximidad domiciliaria y la existencia de hermanos en el centro, sin que pueda existir ningún tipo de discriminación en la regulación ni en el ejercicio de la admisión.

2.- Aquellos alumnos que en razón de sus necesidades educativas especiales precisen de recursos específicos, accederán con carácter prioritario a los centros que dispongan de los mismos.

3.- Corresponde a los padres o tutores el ejercicio del derecho de libre elección de centro. En el marco de la escuela pública vasca, este derecho se ejercerá respecto de cada uno de los centros docentes que la integran.

**Artículo 14.-**

Es parte de la educación de los alumnos el ejercicio de su derecho a participar responsablemente en el gobierno de los centros de la escuela pública vasca, y en general en el desarrollo de toda la vida escolar. El ejercicio de este derecho se graduará en cuanto a su intensidad en función de la edad del alumno, y se desarrollará en el marco de lo previsto en esta ley.

**Artículo 15.-**

1.- Desde el respeto a los derechos individuales y sociales del alumnado en el ámbito escolar, el Gobierno Vasco regulará, mediante decreto, previo informe del Consejo Escolar de Euskadi, los derechos y deberes de los alumnos.

2.- El alumnado de los centros de la escuela pública vasca tiene derecho a un tratamiento disciplinario exento de arbitrariedades y a la existencia de garantías procedimentales en la imposición de sanciones. El decreto previsto en el apartado anterior de este artículo regulará las faltas de los

dunbidea ere, beti ere, doakionari entzunaldia emango zaiola, ukitu gabe horregatik hutsegiteon ondoriozko balizko ekintza zibilak edo zigor-legezkoak.

16. atala -

1.- Eskola-errendimendua objetibotasun osoko irizpideen arabera ebaluatuko da, eskola-prozesuaren garapenean ikasleari eta irakasleari argibideak emateko, etorkizuneko ikasketa- eta lanbide-aukerak hautatzen laguntzeko eta goragoko irakaskuntza-mailetara sartzeko eskubidea bermatzeko. Prozesu horretan, irakasle-klaustroak eta ikastetxeko ordezkaritza-organo gorenak, ikastetxearen hezkuntza- eta ikasketa-proiektuaren arabera, prozesuaren iharduera eta emaitza orokorrak neurtu eta eskola-elkarteari ezagutaraziko dizkiote.

2.- Ikastetxeek ikasturte hasieran jakinarazi beharko dituzte ebaluaziorako irizpideak eta ikasmaila nahiz ziklo bakoitzean gainditu beharreko gutxieneko helburuak, ikastetxearen ikasketa-proiektuan jasotakoak hain zuzen. Irizpideek nahiz gutxieneko helburu horiek bat etorri beharko dute indarrean dauden ikasketa-planekin eta ikastetxeari aitortutako pedagogiazko autonomia erabiliz har daitezen aukerekin.

3.- Ikastetxeek beren antolakuntza- eta iharduera-araudietan ebaluazioen kalifikazioen aurkako erreklamazioak aurkezteko ihardunbidea arautuko dute.

17. atala.-

1.- Idazpuru honetan jasotako hezkuntzarako eskubidea gauza dadin bideratzeko, euskal eskola publikoko ikastetxeek eskolako elkarbizitzaren garapena bultzatuko dute.

2.- Aurreko atalkian jasotako hatsapena ezartzeko, eskola-elkarteko kideek ikastetxearen antolakuntza- eta iharduera-araudian bakoitzari izendatutako eskubideak eta eginbeharrak hartuko dituzte beren gain.

## III. IDAZPURUA
## EUSKARA EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAN

18. atala.-

Euskara eta gaztelania nahitaez sartuko dira euskal eskola publikoan gara daitezen irakaskuntza-programetan, bi hizkuntzen ahozko zein idatzizko ulermena eta adierazmena benetakoa izan eta gutxienez ohizko harremanetarako eta erabilerako hizkuntza gisa erabili ahal izan daitezen.

19. atala.-

1.- Hezkuntza-administrazioa arreta bereziz arduratuko da aurreko atalean arautako helburua bete dadin.

alumnos y sus correspondientes sanciones, así como el procedimiento para su imposición, que contará en todo caso con la audiencia del interesado, sin perjuicio de las acciones civiles o penales que pudieran derivarse de las mismas.

Artículo 16.-

